

KORRIKA 14

“EUSKAL HERRIA EUSKALDUNTZEN; NI ERE BAI”

**Orreagatik Bilbora 2.350 km korrika,
Euskal Herria euskalduntzen martxoaren 10etik 20ra
bitartean**

Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai! Horixe da korrika 14k zabaldu nahi duen mezua eta horixe aukeratu du korrika 14ren lelo. Oraindik euskara ikasi ez dutenei dei berezia egiteko asmoz aukeratu da mezu hori. Hizkuntzaren transmisioan gure seme-alabak euskaraz eskolaratzea bezain garrantzitsua delako helduak euskalduntzea. Norbanakoaren konpromisoa ezinbestekoa dugu hizkuntzak bizirauteko; norbanakoaren konpromisoa euskara ikasteko eta erabiltzeko. Norbanakoaren konpromisoa euskararekiko, korrika 14k aldarrikatzen duena.

Ez da lan erraza eta esfortzua ere handia da, baina AEK eta korrika horretarako gertu daude: AEKren euskaltegietan horren alde lan egiten jarraitzeko.

Orreagatik Bilbora

Hori dela eta, korrika 14ren abiapuntua **Orreaga** izango da; euskararen ezaugarriei eusten jakin duen lekua, bertako eus-

kara propioari eutsi egin dion herria. Helmugarako **Bilbo** aukeratu du korrika 14k: euskaldunon elkartze-leku; euskarak gizarte modernoan lekua baduela erakusten duen hiria, milaka eta milaka euskaldunekin batera aberastuko dugun euskaraz bizi izateko lekua.

Andolin Eguzkitzari omenaldia

Euskarak lortu badu hizkuntza bizi eta moderno moduan irautea, euren burua euskalduntzea, "euskaldun berri" izatea erabaki zuten/duten hainbat eta hainbat euskal herritar zein kanpotarri esker izan da. Eta horiek guztiak kontuan harturik, korrikak omenaldi berezia egiten dio, bere hamalaugarren aldian, **Andolin Eguzkitza** lagunari, milaka eta milaka horien sinbolotzat hartu genezakeelako.

Andolin, Mila urte igaro eta...

Korrika 14k Andolin Eguzkitza omendu nahi izan du. Santurtzin jaioa, euskara hartu zuen lehenengo hizkuntza legez, ama hizkuntza izan ez zuen arren. Euskalduntze prozesuan ari diren guzti-guztien sinbolotzat hartu du korrikak Andolin Eguzkitza.

Berak gazte-gazterik hartu zuen erabakia. Inguru erdal-erdaldunetik abiatuta, euskararen bidezidorretan sartu zen, lehenengo euskaltegian, gero barnetegian, astiari denbora kenduz, klaseak ordaindu ahal izateko Bilboko portuan lan eginez... Euskal kul-



turaren arlo askotan sakondu zuen, idazle eta poeta izan zen, irakasle, poliglota, munduan zehar erakutsi eta irakatsi zuen euskararen balioa eta bere bizitza labur eta oparoaren azken aldian euskaltzain oso izatera ere iritsi zen; Bizkaiko ezker aldeak eman duen lehenengo euskaltzaina izan zen Andolin Eguzkitza.

Mila urte igaro eta... izan zen korrika 14k Andolini euskararen alde egindako lan guztiarengatik eskerrak emateko antolatatu zuen omenaldi-ekitaldia. Edorta Jimenez idazleak idatzitako gidoian oinarrituta, Carlos Panera antzerki zuzendariak zuzendutako ikuskizuna.

Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen omenaldi-ekitaldia, urtarrilaren 22an. Andolin Eguzkitza zenaren bizitzaren errepa-soa izan zen, bere zaletasun eta utzitako idatzietatik abiatuz. Ikuskizun hunkigarria eta ederra, bidaiak, literatura, Zuberoko kantak eta jazz doinuak nahastuz.

Korrika laguntzailea

Korrika laguntzailea izan da korrika 14ren aurre-kanpaina. Hain zuzen ere, korrikaren mezu nagusia zabaltzen hasteko erabili den bidea eta norbanakoaren konpromisoari laguntzeko modua. Zergatik laguntzailea? AEK-k guztion laguntza behar duelako euskararen alde bi urtean behin egiten den Euskal Herriko korrikaldia antolatzeko. Korrika AEKri laguntzeko egiten den moduan, korrika laguntzailea korrikari laguntzeko egiten du AEK-k. Euskararen aldeko ekimenak bideratzeko behar-beharrezkoa du AEK-k laguntzaile kanpaina. Baina, hain zuzen ere, eskatzeaz batera eman ere egin nahi duelako, AEK-k laguntzaile bakoitzari eskaintza berezia egin dio hamalaugarren korrika honetan: 12 euroren truke Euskal Herriko komertzioetan beharpenak izateko aukera.

Aurten Euskal Herriko 300 komertzio baino gehiagok egin dute bat korrika laguntzailearekin. Horri esker, zine-areto, bidai-agentzia, kirol denda, informatika denda, optika, jantzi denda, li-

buru denda, landa-turismo, hotel, autoeskola, argazki denda, oi-netako denda, kirol denda eta abokatuaren bulegoetan beherape-nak izateko aukera dauka korrika laguntzaile egiten denak.

Ni ere bai! Korrika 14ren DVDA

14. korrikak *Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai!* DVDA egin du. Korrika 14ren bideoa, korrika 14ren kanta ofizialaren bideoklipa eta telebistarako korrika 14ren spota jasotzen ditu.

Korrika 14ren bideoak ordu erdi (32 minutu) irauten du eta elkarrizketa bilduma da. Euskalduntzea eta euskaltegia joateko erabakia hartu zuten eta duten aurpegi ezagun eta ezezagun askoren adierazpenez osatutako elkarrizketa bilduma. Unai Iturriagak egin du gidioa eta errealizazioa Elorrioko IKB enpresarena izan da.

Unai Iturriagak bideoaren gainean dioenez, 14. korrikaren mezua euskararekiko norbanakoaren konpromisoa indartzea eta eskatzea da. «Oraindik euskaldun ez diren horiei egin nahi die dei berezia 14. korrikak» dio aurkezpen testuak. «Hortaz, bideoan euren bizitzaren une batean edo bestean konpromiso hori hartu dutenen hitzak eta esperientziak dira protagonista».

43 euskaldun berri elkarrizketatu dira bideoa osatzeko: «Urteotan konpromiso hori hartu dutenen kopurua, zorionez, askoz handiagoa bada ere, lagin moduan zabal samarra dela esan daiteke».

Euskal lurralde guztiak daude ordezkaturik eta, euskara ikas-teko erabakia hartzen dutenak euskal jatorrikoak bakarrik ez direla jakinik, hainbat herrialdeetatik etorritako ikasle edo ikasle ohiak ere ageri dira bideoan. «Elkarrizketatuok garai ezberdi-netan erabaki zuten euskara ikasten hastea, hasi joan den mendearen erdi aldetik eta gaurko egunera arte. Modu horretan, garai batean zein bestean konpromiso hori hartzeko izan zituzten motibazioak, zailtasunak, bitxikeriak, sentimenduak, asmoak... biltzen dira bideoan». Beraz, bideoaren ardatz nagu-

sia elkarrizketok dira, baina korrikaren abiapuntu eta helmuga izango diren Orreaga eta Bilbo ere agertzen dira irudietan.

Horretaz gainera, elkarrizketa atalen artean norbanakoaren konpromisorako gonbitak egiten dira indibidualtasuna gorputzaren atal ezberdinekin azpimarratuz.

14. korrikak lehenengoz bideoa 3 hizkuntzatan kaleratu du: euskara-gaztelera eta euskara-frantsesa.

Bideoaren fitxa teknikoa:

- Zuzendaritza eta ekoizpena: AEK
- Ideia eta gidoia: Unai Iturriaga
- Errealizazioa: Xabier Iñarrairaegi eta Karlos Eriz
- Irudia eta edizioa: IKB
- Infografia: Logela Multimedia
- Sonorizazioa: MXR Mixer
- Soinu Teknikoa: Iker Berna
- Ahotsak: Eva Ojanguren, Xeberri eta Pascal
- Musika aholkularitza: Ander Garaizabal

Elkarrizketatuek euskara ikastera zerk eraman zituen, euskarak zer ekarri dien eta antzeko galderak erantzuten dituzte. 47 lagun agertzen dira bideoan; horietatik 43k euskara zergatik ikasi duten azaltzen dute; euren konpromisoaren berri ematen agertzen dira eta prozesu horretan izan dituzten esperientziak azaltzen dituzte. Herritar ezezagunak eta ezagunak nahasturik daude, guztion konpromisoa behar baitu euskarak.

Igor Elordui
AEKren komunikazio arduraduna